# Amassorrain Ikastolaren

# Urteko Plana

2019/2020 ikasturtea

# Aurkibidea


1. Sarrera eta justifikazioa........................................................................................ 2
2. Helburu orokorrak eta jardueren planifikazioa…………………………………… 3
3. Irakaskuntza-jardueren programa
   3.1. Ohiko irakaskuntza-jarduerak
      3.1.1. Antolaketa eta funtzionamenduaren aspektuak
      - Eskola egutegia eta ordutegia…………………………………….. 13
      - Ebaluazioen egutegia……………………………………………… 14
      - Ebaluazio bilerak…………………………………………………… 14
      - Irakasleriaren eginbeharren esleipenerako irizpideak………….. 15
      - Tutoretzen banaketarako irizpideak……………………………… 15
      - Jarduera esklusibo saioen antolaketa…………………………… 15
      - Hezkuntza errefortzua eta laguntza antolatzeko irizpideak…… 16
      - Amankomuneko guneen antolaketarako eta banaketarako irizpideak………………………………………………………….. 16
      - Irakasleria eta tutoretzen banaketa……………………………… 17
      - Ikastetxeko beste langileak……………………………………….. 18
      - OOG-aren partaideak………………………………………………. 19
      - OOG-aren menpeko batzordeak………………………………… 20
      - Organo bileren egutegia…………………………………………… 22
      3.1.2. Esperientziak, programak eta proiektuak.................................... 23
      3.1.3. Prestakuntza eta garapen profesionala...................................... 30
   3.2. Irakaskuntza-jarduera osagarrien programa............................................ 32
4. Eskolaz kanpoko jardueren programa............................................................ 38
5. Eskolako zerbitzuak.......................................................................................... 39
6. Ekonomia-kudeaketarako plana....................................................................... 42
7. Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko plana……………………….. 43
8. IUP-a ezagutarazteko estrategiak……............................................................ 44
9. Ebakuazio-simulazioa…………………………………………………………….. 45
10. OOG-aren onartze-agiria………………………………………………………… 46




Amassorrain Ikastola Añorga

# 1. Sarrera eta justifikazioa

Zuzendaritza proiektua kontuan izanik eta aurreko ikasturteko IUParen memoria oinarritzat hartuta osatu dugu aurtengo IUPa.

Ikasturte honetako helburu nagusia azkeneko urteetan hasitako metodologia aldaketei jarraipena ematea da:

- HH3tik hasita LH3 arte proiektuen bidez lan egitea.
- HH3tik LH4arte matematika era manipulatiboan lantzea.
- HH-n zirkulazio librearekin jarraitzea.

Gainera programa berriak martxan jarriko ditugu:

- LHko 3.Zikloan “Sare Hezkuntza gelan” proiektua.
- Hizkuntzen trataera bateratua.
- LHko lehenengo zikloan errotazioa.

Honi guztiari HHko lehenengo zikloan erabiltzen den metodologiaren inguruko hausnarketa eta aldaketak gehitu nahi dizkiogu.

Metodologiari buruz egiten ditugun aldaketa guztiak jaso nahi ditugu eskolako dokumentuetan.

Beraz, hau guztia aurrera eramateko indar handia emango diogu behar-beharrezkoa izango ditugun prestakuntza saioei. Horretarako adituak, Berritzeguneak antolatutako ikastaro eta mintegiak, PEG… ezinbestekoak izango dira.

Bukatzeko, hau guztia aurrera eramatea ezinezkoa izango da elkarlanik gabe. Elkarlan hau aurrera eramateko kohesioa eta giro ona ezinbestekoak izango dira.

# 2. Helburu orokorrak eta jardueren planifikazioa

1. helburua: Konpetentzietan oinarritzen den Curriculumean ikasgeletako dinamikan, antolaketan, baliabideetan beharrezko aldaketak ezartzea.

| Jarduerak | Arduraduna-agenteak | Denboralizazioa | Baliabideak | Ebaluazioa: adierazleak eta datak |
|---|---|---|---|---|
| Proiektuen bidez lan egin HH3tik LH3ra | -Zuzendaritza taldea<br>-Ikasleak<br>-Klaustroa<br>-Batzorde pedagogikoa<br>- Maria Jesus Zaldua (Berritzeguneko aholkularia)<br>-Eugenio Sasiain (Lan proietuetan aditua)<br>-Jesus Mari Azkona (HHn aditua) | 2019-2020 ikasturtea | -Ikastetxeko dokumentuak<br>-Hezkuntza sailetik eta Berritzegunetik landutako materialak<br>-Berritzeguneak antolatutako formakuntza saioak<br>-Etapen arteko (HH 2.zikloa eta LH 1. zikloa) bilerak<br>-Ziklo bilerak | -Adostutako erabakiak jasota daude.<br>-Egindako proiektuen programazioak eginak daude.<br>-Egindako metodologia aldaketen praktiken jarraipena egin da.<br>-Egindako metodologia aldaketak praktikan islatzen dira. |
| LH4tik LH6ra, gutxienez, proiektu bat egin | | | | |
| Matematika era manipulatiboan landu HH3tik LH4ra. | | | | |
| HH0-2 metodologiaren inguruko hausnarketa egin. | | | | |
| HH0-2 metodologiaren inguruan adostutako aldaketak egiten hasi. | | | | |
| Metodologia aldaketa hau aurrera eramateko materiala erosi eta sortu. | | | | |

2. helburua:

| Eskolan metodologia eremuan egin diren eta abian dauden aldaketak idatziz jasotzea. |
|---|

| Jarduerak | Arduraduna-agenteak | Denboralizazioa | Baliabideak | Ebaluazioa: adierazleak eta datak |
|---|---|---|---|---|
| Klaustro osoarekin mintegiak osatu eta mintegi buruak aukeratu dira | Zuzendaritza taldea irakasleekin batera | 2019-2020 ikasturte hasiera | Mintegi bakoitzean ziklo bakoitzeko irakasle baten parte hartzea ziurtatu. | Asistentzia kontrola jasota dago. |
| Metodologia atal desberdinen aldaketak jasotzeko mintegiak martxan jarri: “HH lehen ziklo”ko mintegia, “Hizkuntzen mintegia” (irakurketa plana eta hizkuntzen trataera bateratua), “Metodologia mintegia” (proiektu, matematika manipulatiboa eta zirkulazio librea) | | 2019-2020 ikasturtea | Mintegi bilerak<br><br>Berritzeguneko baliabideak<br><br>Beste eskola batzuetako ereduak | Hartutako erabakiak jasota daude.<br><br>Irakurketa plana gauzatuta dago.<br><br>Aldaketa metodologikoak idatzita daude. |
| Adostutako erabaki metodologikoak idatziz jaso ICPn. | | | | ICParen metodologia atala berrituta dago. |

3. helburua: Metodologia aldaketak egin ahal izateko irakasleen prestakuntza bideratzea.

| Jarduerak | Arduraduna-agenteak | Denboralizazioa | Baliabideak | Ebaluazioa: adierazleak eta datak |
|---|---|---|---|---|
| Klaustro osoak formakuntza jaso proiektuen bidez lan egiteko. | -Maria Jesus Zaldua (Berritzeguneko aholkularia)<br>-Klaustroa | 2019-2020 ikasturtea | Berritzeguneko baliabideak | -Prestakuntza gure ildo estrategikoekin koherentea izan da.<br><br>-Prestakuntzetan hartutako erabakiak praktikan jarri dira.<br><br>-Prestakuntzei buruzko iritzii eta proposamenak galdetegien bidez jaso dira.<br><br>-Malena Martinen “Aprendiendo Matemáticas” on-line prestakuntza erabili eta praktikan da (HHn eta LHn).<br><br>-Klaustroak parte hartu du prestakuntzetan. |
| PROIEKTUEN BIDEZKO IRAKASKUNTZA hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektua aurrera eraman | -Eugenio Sasiain (Lan proiektuetan aditua)<br>-Klaustroa | | “Bikaintasunerantz” proiektuak emandako dirua | |
| Matematika manipulatiboari buruzko prestakuntzarekin jarraitu | -Maria Jesus Zaldua (Berritzeguneko aholkularia)<br>-Zuzendaritza taldea<br>-Klaustroa | | -Malena Martinen “Aprendiendo Matemáticas” on-line prestakuntza<br>-Berritzeguneko baliabideak | |
| Haur eskola berritzen | -Jesus Mari Azkona (HHn aditua)<br>-HH 1.zikloko irakasleak | | “Bikaintasunerantz” proiektuak emandako dirua | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| “Sare Hezkuntza gelan” proiektua aurrera eraman | -Berritzegunea<br>-IKT arduraduna<br>-LH3.zikloko irakasleak<br>-Klaustroa | | -“Sare Hezkuntza gelan” proiektuak emandako dirua<br>-Berritzeguneko baliabideak | |
| -Hizkuntzen trataera bateratua (PEG) | -Maria Jesus Zaldua (Berritzeguneko aholkularia)<br>-Zuzendaritza taldea<br>-Klaustroa | | -Berritzeguneko baliabideak | |
| -Konpetentzia digitala (PEG) | -Maria Jesus Zaldua (Berritzeguneko aholkularia)<br>-Zuzendaritza taldea<br>-Klaustroa | | -Berritzeguneko baliabideak | |

4. helburua: Elkarbizitza plana eguneratzea.

| Jarduerak | Arduraduna-agenteak | Denboralizazioa | Baliabideak | Ebaluazioa: adierazleak eta datak |
|---|---|---|---|---|
| Eskolako Elkarbizitza Planaren barruan Hezkidetza Plana berritu | -Elkarbizitzarako behatokia<br>-Aholkularia<br>-Zuzendaritza taldea<br>-Klaustroa<br>-Ikasleak | Ikasturtean zehar | - II Hezkidetza Plana<br>-Berritzeguneko baliabideak<br>-Elkarbizitza behatokiko bilerak | -Ikastetxeko egunerokotasunean genero-ikuspegiaren lanketa txertatuta dago<br><br>-Ikasleek II Hezkidetza Planeko zutabeak egunerokotasunean praktikan jartzen dituzte. |
| Ikasleen iritziak jasota, jolasgaraiak antolatu. | - Elkarbizitzarako behatokia<br>-Ikasketa burua<br>-Ikasle ordezkariak | | -Tutoretza saioak<br>- Ikasketa buru-ikasle ordezkari bilerak<br>-Elkarbizitza behatokiko bilerak<br>-Galdetegiak | -Ikasle guztientzako jolasteko guneak eskaintzen dira.<br><br>-Jolas toki bakoitzerako materiala eskaintza egokia izan da.<br>-Ikasleen arteko gatazkak murriztu dira. |
| Irakasleen arteko giroa hobetzeko eta kohesioa lortzeko jarduerak antolatzea. | - Zuzendaritza taldea<br>- Batzorde pedagogikoa<br>- Jai batzordea<br>- Klaustroa | | - Jai batzordeko bilerak<br>- Batzorde pedagogikoko bilerak<br>- Ziklo eta etapa bilerak<br>- Jarduera ludiko, kultural, formatiboak... | - Klaustrokideen arteko giroa hobetu da.<br><br>- Klaustrokide gehienek parte hartu dute antolatutako jarduaretan. |

5. helburua: Eskolen arteko ekintzak egitea

| Jarduerak | arduraduna-agenteak | denboralizazioa | baliabideak | Ebaluazioa: adierazleak eta datak |
|---|---|---|---|---|
| Berritzegunean antolatzen diren mintegietan parte hartzea beste zuzendaritza taldeekin kontaktuan egoteko eta ideiak proposatzeko. | - Berritzeguneko aholkularia<br>- Beste eskola publikotako zuzendaritza taldeak | Ikasturtean zehar | - Zuzendaritza mintegiak<br><br>- Etapa eta ziklo bilerak<br><br>- Ekintza didaktikoak | -Hainbat ikastetxeko zuzendaritza taldeen artean koordinazioa egon da elkarlana egiteko. |
| Elkarrekin egin daitezkeen ekintzen planifikazioa egitea. | - Zuzendaritza taldea<br>- Batzorde pedagogikoa<br>- Beste eskola publikotako zuzendaritza taldeak | | | -Elkarrekin egiteko ekintzak planifikatu dira. |
| Eskolen arteko esperientzia trukaketak egitea. | - Zuzendaritza taldea<br>- Batzorde pedagogikoa<br>- Irakasleak (bertakoak eta beste eskolakoak) | | | -Esperientzia trukaketak egin dira. |



Amassorrain Ikastola Añorga

# 3. Irakaskuntza-jardueren programa

## 3.1. Ohiko irakaskuntza-jarduerak

### 3.1.1. Antolaketa eta funtzionamenduaren aspektuak

- Eskola ordutegia eta egutegia

- **Sarrera orduan ateen irekitze eta ixteak:**

  Ikastetxeko sarrerako atea goizeko 08:55ean irekitzen da.

  Goizean 09:15ean eta arratsaldean 14:45ean.

  Haur Eskolako atea goizeko 10etan ixten da. Norbait beranduago sartzeko beharrean aurkituko balitz, bulegoan adierazi.

  Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urte eta Lehen Hezkuntzako ikasleek, frontoian agurtuko dituzte gurasoak.

  Haur Hezkuntzako 3 urtekoek 1. hiruhilekoan gurasoekin batera gelara igotzeko aukera izango dute, urtarriletik aurrera frontoian agurtuko dituzte gurasoak.

- **Irteera orduan:**

  Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urteko haurrak ordua baino 5 minutu lehenago frontoira jaitsiko direla gogorarazten dizuegu. Hau dela eta, haur hauen gurasoei ordurako bertan egotea eskatzen dizuegu.

  Lehen Hezkuntzakoak ere frontoira jaitsiko dira.

* H.U.I.S *
DATA: 2019/05/29

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA — DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

ORR.: 1
ERREF.: pw49008

# 2019-2020KO ZENTROAREN EGUTEGIA

Maila: HAUR-LEHEN HEZKUNTZA

Ikastetxeko kodea: 012359
Ikastetxearen izena: CEIP AMASSORRAIN IKASTOLA HLHI
Kurtsoa: 2019-2020
Udalerria: Donostia / San Sebastián
Lurraldea: Gipuzkoa
Ikusk. Zonaldea: Donostia: Zona 1

IRAILA

| AL. | AS. | AZ. | OG. | OR. | LR. | IG. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | | | | | | |

URRIA

| AL. | AS. | AZ. | OG. | OR. | LR. | IG. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

AZAROA

| AL. | AS. | AZ. | OG. | OR. | LR. | IG. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | |

ABENDUA

| AL. | AS. | AZ. | OG. | OR. | LR. | IG. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | 31 | | | | | |

URTARRILA

| AL. | AS. | AZ. | OG. | OR. | LR. | IG. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

OTSAILA

| AL. | AS. | AZ. | OG. | OR. | LR. | IG. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | |

MARTXOA

| AL. | AS. | AZ. | OG. | OR. | LR. | IG. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | 31 | | | | | |

APIRILA

| AL. | AS. | AZ. | OG. | OR. | LR. | IG. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | | | |

MAIATZA

| AL. | AS. | AZ. | OG. | OR. | LR. | IG. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |

EKAINA

| AL. | AS. | AZ. | OG. | OR. | LR. | IG. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | | | | | |

| EGUNA | GOIZEZ | ARRATSALDEZ |
|---|---|---|
| AL. | 09:00-12:30 | 14:30-16:30 |
| AS. | 09:00-12:30 | 14:30-16:30 |
| AZ. | 09:00-12:30 | 14:30-16:30 |
| OG. | 09:00-12:30 | 14:30-16:30 |
| OR. | 09:00-12:30 | 14:30-16:30 |
| TRI | 09:00-12:30 | |
| BER | 09:00-12:30 | |

**Guztira Eskola-egunak:** 175

**Guztira Klase-egunak:** 175

**Eskola-orduak guztira:** 896:30

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Lektiboa | 15 | Asteburua | 15 | Jardunaldi trinkoa | 15 | Jardunaldi berezia | 15 |
| Jaieguna | 15 | Klase gabeko lektibo | 15 | Oporraldiak | 15 | Zaintzari eguna | 15 |
| Herri jaia | 15 | Inhauteria | 15 | Zubia | 15 | Aurkezpena | 15 |

## • Ebaluazioen egutegia

HAUR HEZKUNTZAN:

- **Ikasturte hasieran** tutoreek ikasle berrien gurasoekin bakarkako bilera egingo dute informazioa trukatzeko.
- **Ikasturtean zehar:** Gutxienez, 2 elkarrizketa egingo dira, bigarren hiruhilekoaren hasieran eta kurtso bukaeran. Ikasturtean zehar, irakasleek edo gurasoek beharra ikusten badute, bakarkako behar adina bilera egingo dira.
- **Ikasturte bukaeran** informe idatzia emango zaie.

LEHEN HEZKUNTZAN:

- **Ikasturte hasieran** tutoreek ikasle berrien gurasoekin bakarkako bilera egingo dute informazioa trukatzeko.
- **Ikasturtean zehar: I**rakasleek edo gurasoek beharra ikusten badute, bakarkako behar adina bilera egingo dira.
- **Hiruhileko bakoitzaren bukaeran** txosten idatzia eramango dute etxera.

## • Ebaluazio bilerak

| **LEHEN HEZKUNTZA** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **1. ebaluazioa** Azaroaren | | **2. ebaluazioa** Martxoaren | | **3. ebaluazioa** Maiatzaren | |
| **maila** | **data** | **maila** | **data** | **maila** | **data** |
| LH1 | 20an | LH1 | 11an | LH1 | 20 |
| LH2 A eta B | 27an | LH2 A eta B | 18an | LH2 A eta B | 27 |
| LH3 | 19an | LH3 | 10an | LH3 | 19 |
| LH4 | 22an | LH4 | 13an | LH4 | 22 |
| LH5A | 26an | LH5A | 17an | LH5A | 26 |
| LH5B | 28an | LH5B | 16an | LH5B | 25 |
| LH6 | 21an | LH6 | 12an | LH6 | 21 |

| **HAUR HEZKUNTZA** | | | |
|---|---|---|---|
| **1. ebaluazioa** Urtarrilaren | | **2. ebaluazioa** Maiatzaren | |
| **maila** | **data** | **maila** | **data** |
| HH0 | | HH0 | |
| HH1 | | HH1 | |
| HH2 | 22 | HH2 | 13 |
| HH3 | 22 | HH3 | 13 |
| HH4 | 23 | HH4 | 14 |
| HH5 | 24 | HH5 | 12 |

## • Irakasleriaren eginbeharren esleipenerako irizpideak

Ikasturtea hasi baino lehen, Zuzendaritza taldeak irakasleei esleitu zizkien zegozkien mailak, zikloak eta arloak, alde batetik, talde guztien ezaugarriak eta premiak eta, bestetik, irakasleen espezialitateak aintzat hartuz.

## • Tutoretzen banaketarako irizpideak

Aurten, hainbat motibongatik, irakaslerian aldaketa asko egon direnez, taldeei egonkortasuna emateko asmoz, tutoreen jarraipena bermatzen saiatu gara zikloak osatuz, posiblea izan den kasuetan.

Haur Hezkuntzan bikoiztuta dauden maila guztietan behin betiko irakasle bat kokatu dugu. Lehen Hezkuntzan tutore batzuei taldearekin jarraitzeko eskatu diegu taldeari estabilitatea emateko asmoz.

## • Jarduera esklusibo saioen antolaketa

Ordutegiak osatzerakoan, talde-lana burutzeko, batzordeak biltzeko, ziklo bilerak, mintegiak, klaustroak, irakasleen prestakuntza eta gurasoekin bilerak bai bakarkakoak zein taldekoak egiteko aukerak izaten saiatu gara.

Gure eskolan, astelehenero 16:30tatik 17:30etara irakasleok biltzen ginen, gaiaren arabera, klaustro edo etapa bilerak egiteko, ikasturte honetan, horretaz gain, hamabostean behin hiru mintegietan elkartzen gara: HH 1. zikloko mintegia, Metodologia mintegia eta Irakurketa plana egiteko mintegia. Klaustroko irakasle guztiak hiru mintegietan banatuta daude.

Mintegi hauen helburu orokorra eskolan metodologia eremuan egin diren eta abian dauden aldaketak idatzita jasotzea da.

Honetaz aparte, tutore guztiek beste ordu bete dute zikloen arteko koordinaziorako.

Asteazkenero, 13:00etatik 14:30ak arte, irakasleen prestakuntza saioak egiten ditugu, beharren arabera, Berritzeguneko aholkulariarekin, zenbait kasuetan, kanpoko espezialista batekin eta beste batzuetan, ikastetxeko irakasleekin.

- ## Hezkuntza errefortzua eta laguntza antolatzeko irizpideak

LHko irakasleek beren ordutegiak betetzeko beste geletan laguntza eta errefortzuak egiten dituzte. Laguntza hauek beharren arabera antolatzen dira.

- ## Komunean ditugun guneen antolaketarako eta banaketarako irizpideak

Taldeen ordutegiak egiterakoan komunak diren guneen erabilpena kontutan hartzen da. Ordutegi bat osatzen da eta libre geratzen diren saioak beharren arabera betetzen dira. Gure eskola linea bakarrekoa denez, espazio hauen banaketan ez dago arazorik.

- Irakasleria eta tutoretzen banaketa

| Izen abizenak | Maila-Etapa-Grupo | Kargua | Jarduna | Familiei arretarako ordutegia |
|---|---|---|---|---|
| Marimar Iruretagoiena | HH | Zuzendaria | 1 | |
| Onintze Azpeitia | HH | Ikasketa burua<br>G.H.ko irakaslea | 2/3 | |
| Uxue Bermejo | HH-LH | Idazkaria<br>Musikako irakaslea | 1 | |
| Olatz Arzubialde | HH0A | Tutorea | 1 | Ostegunetan 10:00-11:00 |
| Amaia Gabilondo | HH0B | Tutorea | 1 | Asteazkenetan 09:30-10:30 |
| Maite Sistiaga | HH1A | Tutorea | 1 | Asteartetan 09:30-10:30 |
| Aizpea Muga | HH1B | Tutorea | 1 | Astelehenetan 14:30-15:30 |
| Lourdes Soroa | HH2A | Tutorea | 1 | Astelehenetan 15:30-16:30 |
| Malen Arregi | HH2B | Tutorea | 1 | Asteartetan 15:30-16:30 |
| Ana Altuna | HH3 | Tutorea | 1 | Asteazkenetan 10:00-11:00 |
| Esther Irigoien | HH4 | Tutorea | 1 | Ostegunetan 14:30-15:30 |
| Eli Rama | HH5 | Tutorea | 1 | Asteazkenetan 11:30-12:30 |
| Eva Gabilondo | HH1-HH3 | Laguntzailea | 1 | |
| Mertxe Aizpurua | HH0 | Laguntzailea<br>Jangelako arduraduna | 1 | |
| Olga Hormaetxea | HH3<br>HH4-HH5 | Laguntzailea<br>Ingeleseko irakaslea | 1/2 | |
| Miguel Luna | LH1 | Tutorea | 1 | Astelehenetan 15:30-16:30 |
| Matxalen Salazar | LH2A | Tutorea | 1 | Asteartetan 11:30-12:30 |
| Ane Gurrutxaga | LH2B | Tutorea | 1 | Ostegunetan 11:30-12:30 |
| Bakarne Basurto | LH3 | Tutorea | 1 | Ostiraletan 14:30-15:30 |
| Miren Otaegi (Leire Ibarzabal) | LH4 | Tutorea | 1 | Ostegunetan 14:30-15:30 |
| Maite Arrizabalaga | LH5A | Tutorea | 1 | Astelehenetan 09:00-10:00 |
| Adrian Pérez | LH5B | Tutorea | 1 | Astelehenetan 10:00-11:00 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Marian Arizeta eta Imanol Garcia | LH6 | Tutoreak<br>IKT arduraduna | 1 | Astelehenetan 14:30-15:30 |
| Gudrun Pérez (Amaia Elizalde) | LH | Ingeleseko irakaslea | 1 | |
| Iñaki Gurrutzaga | LH | G.H.ko irakaslea eta irakaslearen ordezkoa | 1/2<br>1/3 | |
| Eneko Vidaurre | HH-LH | Aholkularia | 1 | |
| Kontxi Galatas | HH-LH | PTE | 1 | |
| Pili Vazquez | LH | PTE | 1/2 | |
| Irati Insausti | HH-LH | ALE | 10,5 ord/ast | |
| Arantza Olivieri | HH | AKA<br>HHko laguntzailea | 1 | |
| Marian Etxenike | HH-LH | Erlijioko irakaslea | 3 ord/ast | |
| Idoia Arruti | HH-LH | Hezitzailea | 1 | |
| Maria Teresa Alkorta | HH | Hezitzailea | 1 | |

- ## Ikastetxeko beste langileak

| **Lana** | **Izen abizena** |
|---|---|
| Sukaldariak | Ana Malo, Agurtzane Galfarsoro eta Luis Garmendia |
| Mantenimenduko arduraduna | Joseba Etxarri |
| Garbitzaileak | Inma Merino eta Jaione Sorrondegi |
| Autobus begiralea | Arantza Garaialde |
| Jangelako begiraleak | Arene Altonaga, Nekane Beitia, Begoña Elexpe, Maider Elizburu, Mertxe Eskudero,Ana Etxeberria, Olatz Garcia de Vicuña, Nagore Gonzalez, Meriem Güenoun, Mikel Larrañaga, Ane Miren Peña, Edurne Ubiria, eta Nekane Urdangarin |

- OOG-aren partaideak

| Gurasoak | Irakasleak | Udaletxeko ordezkaria | Administrazio eta zerbitzuetako ordezkaria | Zuzendaritza |
|---|---|---|---|---|
| Olatz Mitxelena<br><br>Aingeru Zabala<br><br>Amaia Roda<br><br>Juan Mari Eguibar<br><br>Oier Mendiola<br><br>Pablo Soraluze<br><br>Leire Magariño<br><br>Ion Millán<br><br>Iker Estanga<br><br>Maitane Goldaratzena<br><br>Enara Vallejo<br><br>Nerea Sanchez<br><br>Xabier Arteaga<br><br>Jose Luis Zuloaga<br><br>HH0ko ordezkaria (oraindik aukeratu gabe) | Adrián Pérez<br><br>Marian Arizeta<br><br>Mertxe Aizpurua<br><br>Kontxi Galatas<br><br>Miren Otaegi<br><br>Olatz Arzubialde<br><br>Arantza Olivieri<br><br>Bakarne Basurto<br><br>Irati Insausti | Maribel Elgarresta | Ana Rosa Malo | **Zuzendaria:**<br><br>Marimar Iruretagoiena<br><br>**Ikasketa burua:**<br><br>Onintze Azpeitia<br><br>**Idazkaria:**<br><br>Uxue Bermejo |

- **OOG-aren menpeko batzordeak**

## Iraunkorra eta Ekonomia Batzordea

| Gurasoak | Irakasleak | Udal ordezkaria |
|---|---|---|
| Amaia Roda<br>Olatz Mitxelena<br>Ion Millán<br>Nerea Sanchez | Marimar Iruretagoiena<br>Onintze Azpeitia<br>Uxue Bermejo<br>Kontxi Galatas | Maribel Elgarresta |

## Higiene eta babesa batzordea

| Gurasoak | Irakasleak | Administrazio eta zerbitzuetako ordezkaria |
|---|---|---|
| Iker Estanga<br>Leire Magariño | Onintze Azpeitia<br>Uxue Bermejo<br>Olatz Arzubialde | Ana Rosa Malo |

## Elkarbizitzarako behatokia

| Gurasoak | Irakasleak | Jangelako ordezkaria |
|---|---|---|
| Maitane Goldaratzena<br>Enara Vallejo<br>Jose Luis Zuloaga | Onintze Azpeitia<br>Adrián Pérez<br>Eneko Vidaurre<br>Uxue Bermejo<br>Arantza Olivieri<br>Bakarne Basurto | Mikel Larrañaga |

## Jangelako batzordea

| Gurasoak | Irakasleak |
|---|---|
| Pablo Soraluze<br>Aingeru Zabala<br>Oier Mendiola | Marimar Iruretagoiena<br>Mertxe Aizpurua<br>Miren Otaegi<br>Arantza Olivieri |

## A.M.P.A.

| | |
|---|---|
| **Lehendakaria** | Aingeru Zabala |
| **Administraria** | Edurne Ubiria |

- Hainbat organo bileren egutegia:

| Organoak | Noiz | Maiztasuna |
|---|---|---|
| Ordezkaritza Organo Gorena | Gutxienez 2 bilera<br>1. eta 3. hiruhilekoan | Asteazkenetan 17:00etan |
| Batzorde Iraunkorra + Ekonomikoa | Astelehenetan 15:00etan | Hilabete eta erdian behin |
| Higiene eta Babesa batzordea | Astelehenetan 16:45etan | Beharraren arabera. Hiruhilekoan behin gutxienez |
| Euskara batzordea | Astelehenetan 16:45etan | Hilabete eta erdian behin |
| Elkarbizitzaren behatokia | Astelehenetan 16:45etan | Hilabete eta erdian behin |
| Jangela batzordea | Astelehenetan 16:45etan | Beharraren arabera. Hiruhilabetekoan behin gutxienez |
| Zuzendaritza taldea | Astelehenetan 14:30etan | Astero |
| Klaustroa | Astelehenetan 16.30-17:30 | Beharraren arabera |
| Batzorde pedagogikoa | Ostiraletan 11:00-12:30tara | Astero |
| IKT-Konpetentzia digitalaren batzordea | Asteazkenetan 10:00etatik 11:00etara | Hilabetean behin |
| Jai batzordea | Ostiraletan 09:00etatik 10:00etara | Astero |
| Ziklo bilera | Ziklo bakoitzeko tutore guztiak batera ordu bete | Astero |
| Mintegiak | Astelehenetan 16:30-17:30 | Hamabostean behin |
| Etapa bilera | Astelehenetan 16:30-17:30 | Hamabostean behin (klaustroa ez dagoenean) |
| Guraso batzarra | Azken asteartetan 19:30etan | Hilero |

## 3.1.2. Esperientziak, programak eta proiektuak

Izenburua edo gaia

**SARE HEZKUNTZA GELAN**

Oharrak

Proiektu honen laguntzarekin, IKTak eta gure eskolako metodologiak bat egiten has daitezke LHko 3. ziklokoan. Honez gain, LH6. mailakoak BHra pasatzeko prestatzea nahi dugu. Hau da, Lehengo urtean, IKT batzordeak, finkatutako irteera perfila bete eta BHn izango den oinarrizko perfilarekin lotzeko. Horretarako, ezinbestekoa izango da gure ikasleak teknologia digitalen erabileran eta ezagutzan trebatzea.

- Ordenagailua eta ordenagailu-sarea lan-bitarteko eta eremu gisa ezagutu eta bereiztea, hardwareko oinarrizko elementuak behar bezala menderatzea, eta baita sistema eragile estandar baten oinarrizko terminologia eta funtzioak ere.
- Hiztegi eta entziklopedia elektronikoetan eta software didaktikoetan informazio-bilaketa gidatu eta zehatzak egiten jakitea, eta Interneteko nabigatzaile baten oinarrizko funtzioez baliatzea, eta bilaketa soila ez ezik, zehatzak ere egitea.
- Posta elektroniko estandar baten eta Interneteko beste komunikazio-zerbitzuen oinarrizko funtzioak (mezularitza, txatak, foroak, blogak, wikiak...) behar bezala erabiltzea.
- Informazioa (testua, grafikoak, soinua, animazioa, bideoa) eraikitzeko eta editatzeko softwarea erabiltzen, eta informazioa testu-prozesadoreetan, aurkezpenetan eta web-orrietan integratzen jakitea.
- IKT baliabideak erabiltzerakoan jakin-minez eta arduraz jokatzea, ikasteko jarrera irekia bultzatuz, komunikazioetan errespetua zainduz eta erabileraren iraupena kontrolatuz.
- IKT bidez lortutako trebetasun praktikoak eta kognitiboak, eskola-gaietan edo eskolaz kanpokoetan aplikatzea, ideiak birlantzeko, osatzeko edo problemak ebazteko.

HHtik eta LHra, gora doazen taldeekin paperezko materialak gutxiago erabiltzen hasi gara, hau da, liburuak kentzen. Beraz, pixkanaka, proiektu honen laguntzaz, hirugarren zikloan pixkanaka ere, joera hori hartu eta medio digitalak eta manipulatiboak erabitzea izango da bidea. Horretarako, blogaren erabilera aregotzea, arbela digitala etengabe erabiltzea, robotikako hainbat programa (code, scrach, Lego digital designer, Kodu Game Lab…) edo eta tresnarekin trebatzea (bee bot, blue bot, Lego weDo,...) teklatuaren bidez egoki idazten trebatzea, irakurketa eta ulermena lantzeko dauden hainbat blog erabiltzea… Testu liburuak kenduta, ezinbestekoa izango da, online informazioa bilatzen eta egoki aukeratzen eta erabiltzen ikastea. Gainera, matematika lantzeko ere noski, dauden hainbat programa eta blog (matematikarekin hegan…) ezagutu eta erabiltzea

Izenburua edo gaia

**PROIEKTUEN BIDEZKO IRAKASKUNTZA hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektua**

Oharrak

Indarrean dagoen Heziberri 2020 planak paradigma-aldaketa garrantzitsua dakar; izan ere, konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren planteamendutik abiatzen da. Aldaketa honek metodologian ere eragina izan behar duela pentsatzen dugunez, ezinbestekoa iruditzen zaigu ikasleak entzun, beren interesetatik abiatu eta motibazioa indartuz lan-proiektuen bidez lan egitea. Curriculuma beti oinarri izanda, sormenari lekua egin eta elkar lanean era kooperatiboan aritzea sustatu nahi dugu.

Momentu honetan, beharrezkoa ikusten dugu aholkularitza eta prestakuntza espezializatua. Eskolan eguneroko dinamikan eragin positiboa izateko prestakuntzak bideratu nahi ditugu. Sor daitezkeen beharretara egokitzeko klaustroak proiektu honen funtzionamendurako beharrezkoa duen prestakuntza jasotzen duela bermatzeko. Prestakuntza honetarako lan proiektuen bidezko metodologian aditu batekin kontaktuan jarri gara.

Proiektu honek emango dizkigun onurak irakasle guztiek jasoko lituzkete. Hau da, HH eta LHko irakasle guztientzako prestakuntza bultzatu nahi dugu.

Proiektuen bidez lan egiteko, irakasleentzako prestakuntza eta laguntzarako 10 saio (15 ordu) aurreikusten ditugu urtean zehar. Saio horietan jasotako aholku eta egin beharrekoetarako, beste hainbeste saio beharko ditugu behintzat, praktikan jarri ahal izateko. Etengabeko froga eta hausnarketa lanak izango dira urtean zehar, ikasi, praktikan jarri, ideiak sortu, hausnartu eta edo ebaluatu, hobetzeko, sortzen diren dudak plazaratu zuzentzeko eta berriz ere, praktikan birjartzeko.

Izenburua edo gaia

**Elkarbizitza behatokia eta hezkidetza proiektua.**

Oharrak

**Elkarbizitza-Hezkidetza Plana** gure egunerokotasunean txertatuta dago. Plan hau garatzeko Elkarbizitzaren Behatokiaz baliatzen gara, bertan guraso, jangelaren langile, ikasle eta irakasleen ordezkariak baitaude. Aurten, II. Elkarbizitza-hezkidetza plana martxan jarriko dugu ere.

Ikastetxeko elkarbizitza positiborako eta gure ikastetxean eskola jazarpen egoerekiko tolerantziarik izango ez duen testuinguru segurua izateko asmoz, orain dela bi urte **Talde Dinamizatzaile** bat sortu genuen (BAT taldea). Talde hau zuzendaria, ikasketa burua, aholkularia eta Behatokiko partaidea den irakasleak osatzen dute.

Orain dela zazpi urte, Amassorrain Ikastolak hezkidetza proiektuan parte hartzen hasi zen. Zazpi urte hauetan helburu desberdinak landu ditugu ikasleekin, familiekin eta irakasleekin batera. Hauen artean Amassorain Ikastolan patioaren antolaketa hezitzailea gauzatzea da, genero erlazioak hobetzeko asmoz. Patioaren antolaketa horrela landu dugu:

- Gelako ordutegietan denbora eskaini ikasleen proposamenak lantzeko eta erabakiak hartzeko (klaustro kide guztiok)
- Hartutako erabakiak martxan jarri.

Gelako ordezkariek ikasketa-buruarekin izan dituzten bileretan landu dituzten gaiak, eta gelarako proposamenak tutoretza saioetan, nahiz beste zenbait momentutan, aurrera eramaten ari gara. Tartean patioaren behaketa eta datu bilketa egin da eta erabaki batzuk ere hartu dira:

- Egun bat baloirik gabeko egunak izatea eta horren ordez beste gauzekin jolastu, portxean ping-pong mahaia jartzea, jolas tokietan txokoak egitea, ziklo bakoitzari dagokion eremua errespetatzea…
- Guraso elkarteari esker lortutako “Natura parkea” erabiltzen hasi gara etapa eta ziklo desberdinak txandakatuz.

Izenburua edo gaia

**Zirkulazio Librea Haur Hezkuntzan (lan eremu aukeraketa librea)**

Oharrak

HH3, HH4 eta HH5 urteko geletako espazioak birmoldatu ondoren, egunero hiru geletako ikasleek libreki zein lan eremutan aritu nahi duten erabakitzeko aukera izaten dute.

Izenburua edo gaia

**Matematika manipulatiboa (HH eta LHko 1. eta 2. zikloetan)**

Oharrak

Joan den ikasturtean Berritzeguneko aholkulariarekin egindako matematikako konpetentziari buruzko prestakuntzari esker, matematikarekiko ikuspegi aldaketa nabaritu da eskolan, metodologia berritzeko ezinbestekoa delako formakuntza jasotzea.

Baliagarria izan da, ebazpen hutsaletatik urrundu eta matematikak jakitea zer den hausnartzen hasteko. Hau da, ez da matematika ikasgaian ebazpen matematikoak egiten ikasi behar, baizik eta ikasleak bere bizitza pertsonalean, sozialean, profesionalean… aurrera egiteko matematikaren zer erabilpen egin behar duen aztertu eta hauek egiten jakitea baizik.

Joan den ikasturtean, Haur Hezkuntzan eta LHko 1.zikloan matematika era manipulatiboan landu zen, saio hauetan ikasitakoa aplikatuz. Ikasturte honetan, LHko 2. ziklora zabalduko dugu, hau da, LH3 eta LH4 mailetan ere matematika era manipulatiboan landuko da.

Gai honi buruzko prestakuntzarekin jarraitzeko “Aprendiendo matemáticas” on-line prestakuntza dugu denontzako eskura, eta “Matematiketan” bloga dugu etengabe eskuartean iazko prestakuntzan jasotako materialaz gain.

Izenburua edo gaia

**Haur eskola berritzen**

Oharrak

HHko lehenengo zikloak erabiltzen duen espazioan egindako berrikuntzaren ondorioz eta irakasle berri asko daudenez, espazio, material, metodologia, etab.-en inguruko hausnarketa eta prestakuntza egitea garrantzitsua dela ikusi dugu. Horretarako, aditu bat hasi da gurekin lanean.

Izenburua edo gaia

**Baikarak programa**

Oharrak

**Baikarak** eskaintzen dituen guraso eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat norberaren ezagutza eta elkarbizitza hobetzeko helburuarekin prestakuntza saioak antolatzen ditugu Guraso eskolaren bitartez. Urteak daramagu programa honetan sarturik eta eskola giroa eta ikasleen arteko harremanak hobetzeko lagundu digu.

Izenburua edo gaia

**Irakurketa – Bikoteka irakurtzen**

Oharrak

Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloetan "Bikoteka irakurtzen" programa eramaten da aurrera. Tutoreek bi ordu erdiko 24 saio izan dituzte ikasleekin, 12 saio tutore eta beste 12 saio tutorizatua. Familiak ere inplikatu egiten dira.

Izenburua edo gaia

**Matematika – Bikoteka arrazoitzen**

Oharrak

Bikoteka arrazoitzen programa berdinen arteko tutoretzan oinarritua dago, egunero ematen diren arazo matematikoei era kooperatiboan, irtenbide bat emateko. Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloetan martxan jarri dugu.

Izenburua edo gaia

**GU ERE BERTSOTAN** programa

Oharrak

Hirugarren ziklokoekin Udaletxeak eskaintzen duen Bertsolaritza programan parte hartzen dugu ahozkotasuna lantzeko. Aurten LH 5 mailako ikasleak arituko dira. Jarduera honekin bide batez, gure euskal kulturan errotuta dagoen tradizioa ezagutu, maitatu eta transmititu egiten da.

Izenburua edo gaia

**ESKOLA IGERIKETA programa**

Oharrak

Programa honetan Lehen Hezkuntzako 1. zikloko ikasleek parte hartzen dute. Ikasturte honetan, maiatzaren 4tik 29 arte, Benta Berriko kiroldegian.

Izenburua edo gaia

**LIBURUKA programa**

Oharrak

Joan den ikasturtetik irakurzaletasuna sustatzeko asmoz, Donostiako Liburutegi Sarearen **LIBURUKA** programan parte hartzen dugu:

- Motxila txikia programan HH3-HH4-HH5-LH1 eta LH2koak
- Irakurle gazteak programan LH1-LH6 bitartekoak (2. hiruhilabetik aurrera)

Programa honen helburuak ondokoak dira:

- Ikastetxe eta liburutegien arteko harremanak indartzea
- Liburutegietako baliabideak ikastetxeei eskaintzea

Izenburua edo gaia

**AÑORGATARRAK proiektua**

Oharrak

Rezola Cemento Museoaren kudeaketa kulturalak antolatutako proiektu honetan LH6ko ikasleek parte hartzen dute.

Añorgatarrak proiektua Museum Cemento Rezolak eta Añorgako auzoak duten gertuko harremana medio sortzen da. Harreman hau proiektuaren ibilbidean zehar indartzen joan da eta museoa elkargune eta bitartekari bilakatu du.

Proiektuaren garapenaren fase ezberdinetan, Cementos Rezola lantegiari eta Añorga auzoari lotuta dauden pertsonen testigantzak jaso dira elkarrizketen bidez. Materiala hainbat edukientzako erabilia izan da, hala nola, ikus-entzunezkoak, Añorgatarrak liburua, belaunaldiarteko tailerrak, etab.

Añorgatarrak proiektua, Añorga auzoko memoria hedatzeko eta ezagutzera emateko, aktibitate ezberdinen sorkuntzan dihardu. Testuinguru honetan, egiteko garrantzitsu bat belaunaldi berriei ondare hau osatzen duten ezagutza horiek guztien transmisioa bermatzean datza.

Izenburua edo gaia

**HAUR PREBENTZIORAKO programa (Esku-hartze goiztiarra)**

Oharrak

Ikastetxeko ikasleen aniztasun beharrei erantzun bat emateko ahaleginetan, Udaletxeak eskaintzen duen “Haur Prebentziorako” proiektuan parte hartzen dugu. Azken urteetan, klaustro eta jangelako begiraleek oinarrizko formazioa jaso izan dute ikasleen alderdi emozionalaren garapenari buruz alde batetik, eta bestetik, ikasleen arazoen detekzioa egiteko. Formazioarekin batera, kasu praktikoak bideratzeko aukera dugu.

Izenburua edo gaia

**PARKETARRAK**

Oharrak

Donostiako Udaleko Euskara zerbitzuak, Añorgako euskara batzordeak eta Urtxintxak “Parketarrak” izeneko egitasmoarekin jarraitzen dugu. Kalean eta parkeetan euskararen erabilera handitzea du helburu.

Izenburua edo gaia

**BIDE HEZKUNTZA programa**

Oharrak

Donostiako Udalak antolatutako programa honetan Lehen Hezkuntzako ikasle guztiek parte hartzen dute bertan bide gorri eta bizikleten etab-en erabilera, abiadura eta hainbat segurtasun neurri lantzeko.

### 3.1.3. prestakuntza eta garapen profesionala

- Ikastetxearen prestakuntza proiektu edota ekintzak (deialdi ezberdinen barruan)

| PEG | | |
|---|---|---|
| **Modulua** | **Arduraduna-agenteak** | **Denboralizazioa eta saioak** |
| **Hizkuntzen trataera bateratua** | **Aholkularitza:**<br>Mª Jesús Zaldua (Ikastetxeko erreferentzi aholkularia)<br>**Arduradunak:**<br>Zuzendaritza taldea<br>**Irakasleak:**<br>HH eta LH | 1.hiruhilekoan |
| **Konpetentzia digitala**<br><br>**Helburua:** Informazioa, komunikazioa, edukiak sortzea, segurtasuna, arazoak bideratzea | **Aholkularitza:**<br>Mª Jesús Zaldua (Ikastetxeko erreferentzi aholkularia)<br>Sonia berritzeguneko IKT arduraduna<br>**Arduradunak:**<br>Zuzendaritza taldea<br>**Irakasleak:**<br>HH eta LH | 2.hiruhilekoan |

- Ikastetxearen beste prestakuntza proiektu edota ekintzak

| Gaiak | Aditua | Egutegia |
|---|---|---|
| Proiektuen bidezko irakaskuntza | Eugenio Sasiain | Ikasturtean zehar 10 saio |
| Matematika manipulatiboa “Aprendiendo matemáticas” | Malena Martín | On-line ikastaroa ikasturtean zehar |
| IKTko formakuntza | Marian Arizeta<br>Arantza Olivieri | Hiruhilekoan behin |
| Sare Hezkuntza gelan (bideo eta audio muntaiak, aurkezpenak…) | Marian Arizeta | Ikasturtean zehar |
| Haur eskola berritzen | Jesus Mari Azkona | Ikasturtean zehar |

- Ikastetxez kanpoko prestakuntza ekintzak lan-ordutegian

| Irakaslea | Ikastaroa edo mintegia |
|---|---|
| Marimar Iruretagoiena, Onintze Azpeitia | Zuzendaritza Mintegia: Dimentsioak lantzen eta egunerokoari erantzunez |
| Eneko Vidaurre | Kontsultoreen mintegia-Elkarbizitza hezkidetza |
| Marian Arizeta | IKT arduradunen mintegia + Sare Hezkuntza |
| Iñaki Gurrutzaga | Gorputz Hezkuntzako mintegia |
| Uxue Bermejo | Musika mintegia |
| Mertxe Aizpurua | Jangelako mintegia |
| Imanol Garcia, Onintze Azpeitia | Irakurmena lantzeko foroa |
| Marimar Iruretagoiena, Bakarne Basurto | Pentsamendua ikusgarri egiten |
| Irati Insausti | Comunicación Aumentativa y alternativa |
| Irati Insausti | TEL ikasleak eskolan: garaiz diagnostikatzea eta jarduera praktikoak |
| Maite Sistiaga, Olatz Arzubialde, Amaia Gabilondo, Malen Arregi | Pikler (Espazioaren orbitan) |
| Maite Sistiaga, Malen Arregi, Eli Rama, Ana Altuna, Esther Irigoien | HH eraldatzen: Zientzia espazioak |
| Eli Rama, Maite Sistiaga | HH eraldatzen: Matematika konpetentzia garatzeko bideak eta baliabideak |
| Olatz Arzubialde, Amaia Gabilondo, Malen Arregi | HH eraldatzen: jolas askea |
| Amaia Elizalde | Hizkuntzen trataera bateratua |
| Kontxi Galatas | PT mintegia |
| Maite Arrizabalaga, Ane Gurrutxaga, Marimar Iruretagoiena | Desde los proyectos, retos, itinerarios pedagógicos cómo trabajar y planificar la competencia matemática |

## 3.2. Irakaskuntza-jarduera osagarrien programa

- Ospakizunak

| Jarduera | Helburuak | Antolatzailea | Arduraduna | Jasotzaileak | Non-noiz |
|---|---|---|---|---|---|
| UDAZKENEKO GAU BELTZA | Kanpotik datozkigun ohiturak eta bertakoak ezagutzea Garaiko fruituekin jolastea eta gozatzea | Jai batzordea Tutoreak Ikasleak | Klaustroa | Ikasle eta Irakasleak | Urriaren 31ean, arratsaldean eskolan zehar eta patioan. |
| EUSKARAREN EGUNA | Nazioarteko Euskararen egun handia ospatzea | Jai batzordea eta Añorgako Kultur eta Kirol elkartea | Zuzendaritza taldea | Ikasle, guraso eta irakasleok | Abenduaren 3a asteartea da, eta Luberriko ikasleekin ospatuko dugu eguna beraiekin jolas eta ekintza desberdinak eginez. Egunean bertan, gurasoekin kantujira egingo dugu goizean. |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| SAN TOMASEKO AZOKA | Azokaren inguruan, Euskal Herriko ohiturak sustatzea eta festa polit bat egitea. | Jai Batzordea | Klaustroa | Ikasle, guraso eta irakasleok | Abenduaren 20ean. Azoka, abesti… eginez. |
| SAN SEBASTIAN EGUNA | Euskal Herriko ohiturak sustatzea | Jai Batzordea | Klaustroa | Ikasle, guraso eta irakasleok | Urtarrilaren 17an ospatuko da, Patioan danborrak joaz! |
| INAUTERIAK | Euskal Herriko ohiturak sustatzea eta proiektu bat egitea | Jai Batzordea | Klaustroa | Ikasle, guraso eta irakasleok | Otsailaren 21ean denon artean erabakitzen dugun gaiarekin, eta talde bakoitzak egiten duen proiektuarekin ospakizuna eginez. |
| EMAKUMEEN EGUNA | Emakumeen eskubideak ezagutzea eta errespetatzen ikastea | Batzorde pedagogikoa | Zuzendaritza taldea | Ikasle eta irakasleok | Eskolan landuko da Martxoaren 8ko astean zehar. |
| HAURREN LIBURUAREN EGUNA | Irakurtasuna sustatzea | Batzorde pedagogikoa | klaustroa | Ikasle eta irakasleok | Apirilaren 23an |
| LGTBIREN FOBIAREN AURKAKO EGUNA | Denon arteko errespetua sustatzea | Batzorde pedagogikoa | klaustroa | Ikasle eta irakasleok | Maiatzean |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| FAMILIEN EGUNA | Familia mota desberdinen lanketa | Batzorde pedagogikoa | klaustroa | Ikasle eta irakasleok | Maiatzean |
| IKASTURTE BUKAERAKO JAIALDIA | Laguntasuna lantzea<br>Euskararen erabilera lantzea<br>Ondo pasatzea | Jai Batzordea eta zuzendaritza taldea | Klaustroa | Ikasle, guraso eta irakasleok | Ekainaren 12ean. |

- Egonaldiak

| Jarduera | Helburuak | Antolatzailea | Arduraduna | Jasotzaileak | Non-noiz |
|---|---|---|---|---|---|
| ATERPETXEA zehazteko | Sormena sustatzea<br>Laguntasuna lantzea<br>Parte-hartzea bultzatzea<br>Naturan elkarbizitza ezagutzea<br>Euskararen erabilera lantzea<br>Ondo pasatzea | AMPA | LH3ko tutorea eta irakasle laguntzailea | LH3 ikasleak | |
| ZUHATZA UHARTEKO ATERPETXEA | Talde barruko harremanak indartzea, eta sustatzea partaidetza, errespetua eta | Arabaz blai | LH6ko tutorea eta irakasle laguntzailea | LH6 ikasleak | Ullibarri-Ganboako urtegian (ekainak 15, 16 eta 17) |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | pertsonarteko ezagutza.<br>Euskaraz partekatu, gozatu eta bizitzea.<br>Gure lurraldeko historia eta kultura ezagutzea, joko edota kirol jardueren bidez.<br>Ikasleek ondo pasa dezatela. | | | | |

- Irteerak, bisitak eta beste ekintza osagarriak

| Jarduera | Antolatzailea | Arduraduna | Jasotzaileak | Non-noiz |
|---|---|---|---|---|
| HAURRENTZAKO PARKE BAT | Tutore eta irakasle laguntzaileak | Tutoreak | HH2-HH3 ikasleak | Nora zehaztu gabe (ekainean) |
| GOIZ BATEKO IRTEERA | Tutore eta irakasle laguntzaileak | Tutoreak | HH2-HH3 ikasleak | Oraindik zehaztu gabe (ikasturte bukaeran) |
| ESKOLAKO INGURUAK ETA BALIABIDEAK | Tutore eta espezialistak | Tutoreak | HH4-HH5 ikasleak | Eskolako inguruak (ikasturtean zehar) |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| LAN PROIEKTU ETA GAIEN ARABERAKO IRTEERAK ETA BISITAK | Tutoreak | Tutoreak | HH4-LH6 bitarteko ikasleak | Hainbat lekutara (ikasturtean zehar) |
| ZINEMALDIA | Donostiako Zinemaldia | Tutore eta espezialistak | LHko ikasleak | Donostiako Belodromoan (irailak 20) |
| KONTZERTU PEDAGOGIKOAK | Udal musika eskola | Musikako irakaslea eta tutoreak | HH5<br>LH1<br>LH4 | Maiatzak 29 Udal musika eskolan<br>Irailak 27<br>Urtarrilak 10 |
| IGERIKETA | Udaletxea | Tutoreak | LH1 eta 2 | Maiatzak 4-29 |
| BIDE HEZKUNTZA | Udaltzaingoa | Udaltzaingoa | LH | Azaroak 26-29 |
| ORKESTRA SINFONIKOA | Orkestra sinfonikoa | Musikako irakaslea eta LH5-6ko tutoreak | LH3<br>LH5 eta 6 | Azaroak 22 Orkestra sinfonikoaren egoitzan |
| BERTSOLARITZA EMANALDIA | Bertsozale elkartea | LH5eko tutorea | LH5 ikasleak | Maiatzak 19, Donostiako Antzoki Zaharrean |
| TITIRIJAI¨18 | Tolosako TOPIC | Tutoreak | LH5-LH6 ikasleak | Tolosako TOPICen (azaroak 29) |
| ALGORRI | Tutoreak | Tutoreak | LH6 | Zumaia (urriak 4) |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| KATXOLA | Tutoreak | Tutoreak | LH5 | Aiete (urriak 25) |
| PAGOETA | Tutoreak | Tutoreak | LH5 | Maiatzak 19 |
| BAIKARAK ANTOLATUTAKO TAILERRAK | Baikara | Tutoreak | LHko ikasleak | Amassorrain ikastolan (maiatzean) |
| KURTSO BUKAERAKO TXANGOA | Irakasleak, zuzendaritza taldea, AKA eta AMPA | Irakasleak eta zuzendaritza taldea | HH4-LH6 bitarteko ikasleak | Oraindik zehaztu gabe (ekainaren 20an) |

# 4. Eskolaz kanpoko jardueren programa

| Jarduera | Antolatzailea | Arduraduna | Jasotzaileak | Non-noiz |
|---|---|---|---|---|
| MUSIKA | Pandero: Leire Amiano<br><br>Trikitixa: Maddi Cenzana<br><br>M.L./piano: erabaki gabe<br><br>Kitarra: Sergio Villar, María Soriazu | A.M.P.A. | Eskolako Ikasleak | Eskolako gela desberdinetan |
| ESKOLA KIROLA | Asier Alkain<br>Leire Loidi<br>Miren Eraunzetamurgil<br>Ander Eraunzetamurgil<br>Jon Urkia<br>Mikel Larrañaga<br>Irati Bengoetxea | A.M.P.A.<br>Aitor Urkia (koordinatzaile) | Eskolako Ikasleak | Eskolako kantxan |
| ANTZERKIA | Amaia Ruiz de Galarreta | A.M.P.A. | Eskolako Ikasleak | Eskola zaharra (ostegunetan eta ostiraletan) |
| XAKEA | Markel Zuloaga | A.M.P.A. | Eskolako Ikasleak | LH6 (astelehenetan) |
| SORMEN HEZKUNTZA | Maialen Arozena | A.M.P.A. | Eskolako Ikasleak | HHko gela batean (astelehenetik ostegunera) |
| DANTZA | Olatz Couso | A.M.P.A. | Eskolako Ikasleak | HHko gela batean (asteazkenetan) |
| JUDO | Jone Irastorza | A.M.P.A. | Eskolako Ikasleak | Eskola Zaharra (Astearte, ostegun eta ostiraletan) |

# 5. Eskolako zerbitzuak

Zerbitzua

**JANGELA**

Oharrak

**JANGELA**

Ikastolako jangela "kudeaketa zuzena" deritzon planean sartuta dago. Hau da, Eusko Jaurlaritzak "Auzo lagun" enpresa kontratatzen du eta ikastolak berak kudeatzen du.

Lehengaiak Auzo Lagun enpresak hornitzen ditu eta otordua, ikastetxean bertan, gure sukaldariek prestatzen dute..

**ARDURADUNA:** Mertxe Aizpurua

**SUKALDARIAK:** Agurtzane Galfarsoro, Luis Garmendia eta Roberto Echarte (Ana Malo).

**HAURREN ZAINTZA:** "Auzo Lagun" enpresak kontratatzen ditu begiraleak: Arene Altonaga, Nekane Beitia, Begoña Elexpe, Maider Elizburu, Mertxe Eskudero, Ana Etxeberria, Olatz Garcia de Vicuña, Meriem Güenoun, Mikel Larrañaga, Ane Miren Peña, Alvaro Salvadores, Edurne Ubiria eta Nekane Urdangarin,

Ikasleekin zuzenean egin beharreko lanetatik aparte, langile hauek, Elkarbizitza eta Haur Prebentzio proiektuan ezarritako helburuak lortzearren, jaso behar duen prestakuntza eta burutu behar dituzten ekintzak antolatzen dituzte

Zerbitzua

**GARRAIOA**

Gure ikastetxearen kokapena eta trafiko ugariak sortzen duten arriskuak kontuan izanda, zonalde ikasleak garraiatzeko autobus zerbitzua antolatzen da.

**Begiralea:** Arantxa Garaialde Telleria

**Enpresa:** Autobuses García

Zerbitzua

**GOIZEKO GELA**

Oharrak

Ikasleen sarrera ordua ofiziala hasi aurretik, beharra duten (0 - 12) ikasleen zaintza bermatzeko, antolatzen den zerbitzua da. Ordutegia: 7:30-9:00 **Begiraleak:** Nekane Urdangarin (0-1-2 urtekoekin) eta Mertxe  Eskudero (3-12 urtekoekin).

Zerbitzua

**LIBURUTEGIA**

Oharrak

Iaz 60 urte baino gehiago izateagatik ordu lektiboen murrizketa zeukan irakasle baten ordu libreak erabiltzen hasi ginen liburutegia txukuntzeko. Aurten murrizketa hau duen figurarik izan ez arren, beste irakasle baten orduak erabili ditugu lan horrekin jarraitzeko.

Liburuak antolatzen eta katalogatzen jarraitzeaz gain, ingurua goxatzeko asmoz gaude.

Liburutegiaren erabilera handitzeko asmoz, hasi gara talde bakoitza ordutegi finko batean liburutegira joaten. Eguraldi txarra dagoenetarako ere, irakasle bat egongo da liburutegiko arduradun tarte horretan haurrak mahai jolasak erabili eta irakur ahal dezaten.

Zerbitzua

**UDAKO TXOKOAK**

Oharrak

Zerbitzu hau Guraso elkarteak antolatzen du oporraldietan:

**Aste Santuan:** Haur Hezkuntzako 0, 1 eta 2 urtekoentzat, 07:30etik 14:30era (taldea sortuko balitz).

**Ekainaren 22tik aurrera eta uztailean:** Haur Hezkuntzako 0, 1 eta 2 urtekoentzat 07:30etik 14:30era (taldea sortuko balitz). Beste ikasle guztientzat udako txokoak 07:30etik 14:30era.

# 6. Ekonomia-kudeaketarako plana

Data / Fecha: 28/06/2019

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Pág. 1 /1 Orria
Erref. / Ref. P77002

## *AURREKONTUA GAUZATZEAREN EGOERA-ORRIA 2019*

*IKASTETXEA:* *CEIP AMASSORRAIN IKASTOLA HLHI* *DATA:* *28/06/2019*

*IKASTETXE-KODE:* *012359*

*UDALERRI:* *DONOSTIA / SAN SEBAS...* *L.H.:* *GIPUZKOA*

| SARRERAK | |
|---|---|
| **1.- AURREKO EKITALDIKO GERAKINA** | **37.939,62** |
| **2.- HEZKUNTZA SAILETIK** | **42.029,35** |
| A.- FUNTZIONAMENDU-GASTUAK | 8.836,38 |
| B.- EKIPAMENDUA | 3.261,00 |
| C.- OBRA TXIKIAK | |
| D.- KUDEAKETA-ZUZENEKO JANTOKIAK | 27.184,97 |
| F.- TESTULIBURUAKS | |
| T.- HEZKUNTZA-ESPERIENTZIA ETA BESTE JARDUERAK | 2.747,00 |
| **3.- BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO ETA ERAKUNDE BATZUK** | |
| A.- EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN BESTE SAIL BATZUK | |
| B.- EAE-KO ERAKUNDE AUTONOMO ADMINISTRATIBOAK | |
| C.- EAE-KO ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAK | |
| D.- EAE-KO SOZIETATE PUBLIKOAK | |
| F.- EAE-KO FORU ALDUNDIAK | |
| K.- EAE-KO UDALERRIAK TOKI-ERAKUNDEAK | |
| M.- EUSKAL ALOR PUBLIKOKO BESTELAKO ERAKUNDEAK | |
| N.- IRABAZI GABEKO ERAKUNDEAK, FINANTZAKETA PUBLIKO | |
| P.- ESTATUKO ALOR PUBLIKOA | |
| T.- ATZERRIKO ALOR PUBLIKOA | |
| **4.- BESTE JATORRI BATZUETAKO DIRU SARRERAK** | **86.126,19** |
| A.- ZERBITZUAK EMATEAGATIKO DIRU-SARRERAK | |
| B.- KUDEAKETA ZUZENEKO JANTOKIETAKO KUOTAK | 82.217,01 |
| C.- LEGATUAK, DOHAINTZAK ETA BESTE EMARI BATZUK | |
| D.- ONDASUNAK SALDUZ LORTUTAKO DIRU-SARRERAK | |
| E.- BANKU-INTERESAK | |
| F.- AURREKO EKITALDI ORDAINKETEN ITZULKETA | |
| H.- TESTULIBURUAK ERABILTZEAGATIKO EKARPENA | 3.909,18 |
| T.- BESTE DIRU- SARRERA BATZUK | |
| **SARRERA-AURREKONTUA GUZTIRA** | **166.095,16** |

| GASTUAK | |
|---|---|
| **I.KAP.: PERTSONALAREN GASTUAK** | **210,00** |
| **16.- GASTU SOZIALAK** | **210,00** |
| 162.- BESTELAKO GASTU SOZIALAK | 210,00 |
| **II.KAP.: GASTU ARRUNTAK** | **137.869,57** |
| **21.- ALOKAIRU ETA KANONAK** | |
| 213.- INSTALAZIO TEKNIKO, MAKINERIA ETA TRESNERIA | |
| 214.- ALTZARIA | |
| 215.- INFORMAZIO PROZESUETAKO EKIPOAK | |
| 218.- KANONAK | |
| **22.- KONPONKETA ETA ZAINKETAK** | **4.356,81** |
| 222.- ERAIKUNTZAK | |
| 223.- INSTALAZIO TEKNIKO, MAKINERIA ETA TRESNERIA | 2.148,75 |
| 224.- ALTZARIA | |
| 225.- INFORMAZIO PROZESUETAKO EKIPOAK | 2.208,06 |
| 226.- GARRAIO-ELEMENTUAK | |
| **23.- KANPOKO BETE ZERBITZU BATZUK** | **133.512,76** |
| 232.- PROFESIONAL INDEPENDIENTEEN ZERBITZUAK | |
| 233.- GARRAIOAK | |
| 235.- BANKU-ZERBITZUAK ETA ANTZEKOAK | 0,58 |
| 236.- KOMUNIKAZIO INSTITUZIONALA, PUBLIZITATEA ETA HARRE | 153,99 |
| 237.- HORNIDURAK | 5.754,05 |
| 238.- BESTELAKO KANPOKO ZERBITZUAK | 127.604,14 |
| **28.- BESTE HAINBAT GASTU** | |
| 281.- ZERGAK | |
| 282.- ZENBAIT GASTU | |
| **VI.KAP.: INBERTSIOAK** | **496,80** |
| **62.- BESTELAKO INBERTSIOAK** | **496,80** |
| 623.- BESTELAKO INSTALAZIO, INSTALAZIO TEKNIKO, MAKINERI | |
| 624.- ALTZARIA | |
| 625.- INFORMAZIO PROZESUETARAKO EKIPOAK | 496,80 |
| 629.- BESTELAKO IBILGETU MATERIALA | |
| **GASTU-AURREKONTUA GUZTIRA** | **138.576,37** |

Kontuaren onarpen eginbidea ........-...........................-..........(e)an egindako bileran

ORDEZKARITZA ORGANO GORENAK kontu hau ontzat ema duelaziurtatzen dut.

Ikastetxeko Zuzendaria

Administratzailea / Idazkaria

Amassorrain Ikastola Añorga
Añorga hiribidea, 27 • 20018 DONOSTIA
Tel.: 943 370 872 • Faxa: 943 370 860 • E-posta: ...

# 7. Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko plana

| | |
|---|---|
| Bilerak | Ikasturte hasieran tutore bakoitzak bere taldekoen guraso bilera antolatzen du. Bilera honetan, irakasleak, ikasturteko metodologia eta dinamika, taldearen ezaugarriak, arlo desberdinetan landuko diren helburuak, eta abar aipatuko ditu.<br>Bestalde, une egokia da, gurasoek, beraien kezkak, zalantzak, proposamenak … era eraikitzailean azaltzeko.<br>Ikasturte honetan, bilera egin ondoren, guraso guztiei korreo elektronikoaren bidez bidali zaie galdetegi bat bilera baloratzeko eta beraien iritziak eta iradokizunak jasotzeko. |
| Elkarrizketak | Banakako elkarrizketak, irakasleek edo gurasoek konbokatu ditzakete. Gutxienez bi egiten dira ikasturtean zehar (0–12 urte bitarteko ikasleen gurasoekin). Bilera hauek beharrezkoak dira ikasleen martxa eta ongizatea bermatzeko. |
| Bisitak | Matrikula garaian edo beste edozein momentuetan ere, familia berrien bisitak jasotzen ditugu. Bisita horietan eskola erakusteaz gain, gure Hezkuntza Proiektu laburtua zein den azaltzen zaie. |
| Informeak | Lehen Hezkuntzako ikasleen familiek, urtean 3 informe idatzi jasotzen dituzte, hiruhileko bakoitzean bat. Haur Hezkuntzakoek, berriz, bi informe jaso dituzte: ahozkoa Gabonetako oporrak eta gero, idatzizkoa berriz, ikasturte bukaeran. |
| Aldizkariak | Urtero, LH6 mailako ikasleek, Txuspi aldizkaria argitaratzen dute eskolako beste ikasleen laguntzarekin. Ikas talde bakoitzak bere ekarpena egiten du, denen artean osatzen da aldizkaria. Familia bakoitzari bat banatzen zaio, aurten 24. alea argitaratuko da. |
| Web gunea | Ikastolako kolektibo guztiok (ikasle, irakasle, guraso, langile, etab.) informazioa jaso eta parte hartzeko aukera dugu gure web orrialdean. |
| Posta elektronikoa | Familiekin komunikazioa arintzeko asmoz, ia guztia on-line bidaltzen dugu. Komunikazio modu honek alde bietako norabidea du. |
| Galdetegiak | Egiten ditugu ekintza desberdinen iritzi jasotzea eduki ahal izateko, aldian-aldian, galdetegiak bidaliko dira horietan parte hartu duten partaideei. |

# 8. IUP-a ezagutu arazteko estrategiak

| | **Arduradunak** | **Denboralizazioa** | **Estrategia, baliabide eta bideak** |
|---|---|---|---|
| IKASLERIA | Tutoreak | OOGak onartzen duenean | Tutoretza saioetan |
| IRAKASLERIA | Zuzendaritza taldea | Urrian | E-mailen bidez, bidaltzen zaie IUPa, gero, klaustro bat egiten da onartzeko. |
| FAMILIAK | Zuzendaritza taldea | Irailaren bukaeran | E-mailen bidez, familiei eskola buletina bidaltzen zaie IUPn azaltzen diren zenbait gauza azalduz. Gure web orrialdean ere zintzilik dago. |
| OOG | Zuzendaritza taldea | OOG lehen aldiz bildu aurretik | E-mailen bidez, bidaltzen zaie partaide guztiei IUPa. Ondoren, OOGak onartu behar du egindako bileran. |
| ADMINISTRAZIOA | Zuzendaritza taldea | OOGak onartzen duenean | Ikuskaritzako aplikazioan zintzilikatzen da |

# 9. Ebakuazio-simulazioa

Ikasturte honetako lehenengo hiruhilekoan **ebakuazio-simulazio** bat egingo dugu. Hustuketa egin baino lehen, klaustro batean oinarrizko gomendio batzuk gogoraraziko ditugu bakoitzaren betebeharrak argi edukitzeko.

Tutoreek geletan, ikasleei nola jokatu behar den gogorarazteko gaia landuko dute. Simulazioa zuzendaritza taldea eta Higiene eta babesa batzordearen ardurapean egingo da. Bi organo hauek larrialdi zehatz bati erantzun ahal izateko planifikazioa egingo dute.

Simulazioa ikastetxearen okupazio-maila gorenekoa denean gauzatuko da.

# 10. OOG-aren onartze-agiria